



FRANTZIAKO ERREPUBLIKA

BAIGORRIKO HERRIA

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA 2023ko URTARRILAREN 20a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, urtarrilaren hogeian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, Jaun Auzapezak deiturik. Dei hori 2023ko urtarrilaren 16an afixatua izan zen eta 2023ko abenduaren 16an posta elektronikoz igorria. Auzapeza bilkuraburu zen.
Hor zirenak	13	
Bozkatzaileak	13	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Betti jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, DEGUIRAUD Hélène anderea, CURUTCHARRY Antton jauna eta OLÇOMENDY Betti jauna,

Hor ez zirenak baina boterea emana zutenak: CLAUZEL Sébastien jaunak Daniel ITHURBURUA jaunari emana zakon, BIBES Jean Paul jaunak DUPUY Maddalen andeari emana zakon

Bilkurako idazkaria: CURUTCHARRY Antton jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea, eta gai zerrendan puntu bat gehitu zela zehaztu:

- *Agence France Locale bankuaren zonbait hartzeduni garantiaren emaita*
- *Inbestimendu gastuak baimentzea jatorrizko aurrekontu nagusia aitzin*
- *BLED/TISEren galdatzea Postako 1. estaiko apartamenduaren berritze proiekturako*
- *BLED/TISEren galdatzea kirol mulkoko teilatuaren berritze proiekturako*
- *Urepeleko Herriko Etxeak Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordeari Anglesaineko etxe beherea kitorik uztea onartzea*
- *Kanpalekuko barne araudiaren onartzea*
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2022ko abenduaren 9ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2023-1 DELIBEROA - AGENCE FRANCE LOCALE BANKUAREN ZONBAIT HARTZEDUNI GARANTIAREN EMAITEA 2023. URTEAN – 7.3 NOMENKLATURA

Herriko Kontseiluak:

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, eta bereziki 1611-3-2 artikulua;

Ikusirik 2020ko maiatzaren 25eko 19. deliberoa, auzapezari maileguak egiteko eskumena emaiten dakona;

Ikusirik 2017ko agorrilaren 25eko 75. deliberoa, Baigorriko Herriko Etxea Agence France Locale bankuari kidetzea onartzen duena

Ikusirik Agence France Locale bankuko bi sozietateen estatutuak, eta kontuan harturik Agence France Locale bankuari garantia autonomia lehenbiziko galdetik beretik emateko beharra, Agence France Locale bankuaren hartzedunen probetxutan, Baigorriko herriaren zorraren zenbatekoraino, Baigorriko herriak maileguak egin ditzan Agence France Locale bankuan;

Ikusirik Garantiaren mekanismoa deskribatzen duen dokumentua, hots, txosten hau idaztean indarrean den 2016-1 Modeloa.

Eta, eztabaidatu eta deliberatu ondoan:

- Erabaki du Baigorriko herriaren Garantia emaiten zakotela, baldintza hauetan, Agence France Locale bankuak dokumentuak edo agiriak eman jabeei (*hartaileak*):
 - 2023. urterako eman daitekeen Garantiaren zenbateko gorenaren Baigorriko herriak 2023. urtean har ditzakeen maileguen zenbateko gorenaren heinekoa da,
 - Garantiaren gehieneko iraupena Baigorriko herriak 2023an Agence France Locale bankuan dituen maileguetarik luzeenari dagokio, gehi 45 egun.
 - Hartzaile bakoitzak, hartzaile baten edo batzuen ordezkoko baimendun batek edo Lurraldeko Sozietateak Garantiaz hel egin dezake; eta,
 - Garantiaz hel eginga bada, Baigorriko herria engaiatzen da galdegina zaizkion diruketak ordaintzera, 5 lan egun barne.
 - auzapezak 2023rako eman Garantia kopurua Agence France Locale bankuan hartu maileguen kopuruaren heinekoa izanen da, erreferentziazko jatorrizko aurrekontuan ezarri zenbatekoen neurrian, eta Garantia bakoitzaren zenbateko gorenaren engaiamendu agirian ageri den zenbatekoaren heinekoa izanen da.
- Baimena eman dako auzapezari edo haren ordezkari, 2023. urtean Baigorriko herriak hartu Garantia engaiamenduak izenpetzeko, gorago finkatu baldintzetan, Garantiaren ezaugarri guztiak aurkezten dituzten modeloen arabera (ikus eranskinetan);
- Baimena eman dako auzapezari erabaki hau plantan ezartzeko neurriak hartzeko eta agiriak izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

2. 2023-2 DELIBEROA - INBESTIMENDU GASTUAK ORDAINTZEA AURREKONTUA BOZKATU AITZIN - 7.1 NOMENKLATURA

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 1612-1 artikulua araberan, Herriko Kontseiluak baimena emanik, auzapezak inbestimendu gastuak abiatzen eta kitatzen ahal ditu eta mandatua eman, aitzineko kontualdian ideki maileguren laurdenaren neurrian: hots, **592 997.00 €**. Baimen hori beharrezkoa da Herriko Etxeak urte hastapenean inbestimendu gastu berriei buru egin behar dienean, aurrekontua bozkatua izan arte. Auzapezak biltzarrari jakinarazi dako beharrezko inbestimendu gastuak hauek direla:

- 114. op: errepideen berritze obrak: 100 000.00 €
- 120. op: Herriko eraikinak: 60 000.00 €
- 182. op: Aro gaiztoarengatik egin obrak: 200 000.00 €
- 189. op:kamioi baten erosketa: 5 000.00 €

Zehaztu du dagozkion kredituak aurrekontuan idatziko direla.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

BAIMENA EMAN DAKO auzapezari inbestimendu gastuak abiatzeko, kitatzeko eta mandatua emateko, aitzineko kontualdian ideki maileguren laurdenaren neurrian, operazio hauek burutzeko:

- 114. operazioa: errepideen berritzea: 100 000-00 € 2151 kontuan
- 120. operazioa: Herriko eraikinak: 60 000.00 € 2131 kontuan
- 182. operazioa: Aro gaiztoarengatik egin obrak: 2151 kontua: 150 000.00 € 2051 kontua: 50 000.00 €
- 189. operazioa: Kamioi baten erosketa: 2182 Kontua: 5 000.00 €

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

3.- 2023-2 DELIBEROA - BLED/TISEren GALDATZEA POSTAKO 1. ESTAIKO APARTAMENDUAREN BERRITZE ENERGETIKORAKO – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du beharrezkoa dela obrak egitea 2022ko abenduan erosi Postako 1. estaiko apartamenduan.

Berinak aldatu behar dira berina bikoitzak ezartzeko, kanpoko murrak eta teilatupea isolatu, fluxu bakarreko VMCa instalatu, bero ponpa eta berogailuak ezarri eta ECS ur berogailua.

Elektrika muntadurak eta bainugelako muntadurak ere aldatu beharko dira, tindatze eta lauatzete obrak egin.

Jaun auzapezak zehaztu du ikerketa termikoa egin dela obren ondoko irabazi termikoa estimatzeko.

Jaun auzapezak irakurtu ditu estimazio-aurrekontuak eta proposatu du BLED/TISE dossier baten aurkeztea Estatuari, dirulaguntza dossier bat Euskal Hirigune Elkargoari eta Departamenduari (Bizitegi Plana – 64).

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- **ONARTU DU** obrak egiteko aurrekontuen zenbatekoa (98 069.93 € BEZa gabe), ikerketa termikoaren aurrekontuaren zenbatekoa (800.00 €) eta planoen aurrekontuaren zenbatekoa (250.00 € BEZa gabe)
- **ERABAKI DU** Postako 1. estaiko apartamenduan berritze energetikorako obrak egitea
- **AURREIKUSI DITU** operazio horretarako beharrezkoak diren kredituak
- **GALDEGIN DU** BLED-TISE dirulaguntza 2023 urterako obra horiek egiteko
- **GALDEGIN DU** dirulaguntza bat Euskal Hirigune Elkargoari eta Departamenduari (Bizitegi Plana – 64)
- **ONARTU DU** eranskinetako finantzamendu plana

2023ko URTARRILAREN 20ko bilduma

GASTUAK	ZENBATEKOA (BEZa gabe)	IRABAZIAK	ZENBATEKOA
Obrak	98069.93 €	BLED-TISE	39 679.97 €
Ordainsariak	1 130.00 €	Euskal Hirigune Elkargoa	10 000.00 €
		Departamendua	20 000.00 €
		Autofinantzamendua	29 519.96 €
OROTARA BEZa gabe	99 199.93 €	OROTARA BEZa gabe	99 199.93 €

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

4- 2023-04 DELIBEROA – EZKER PARETAKO KIROL MULKOKO TEILATUAREN BERRITZE OBRAK ETA ELEKTRIKA ARAUEN ARABERA EZARTZEA - BLED-TISE GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du beharrezkoa dela ezker paretako teilatuaren berritze obrak egitea eta elektrika arauen arabera ezartzea.

Kanpoa tindatu beharko ere da.

Jaun auzapezak irakurtu ditu estimazio aurrekontuak eta proposatu du BLED-TISE dosierra aurkeztea Estatuari.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- **ONARTU DU** obrak egiteko aurrekontuen zenbatekoa (72 556.10 € BEZa gabe)
- **ERABAKI DU** teilatuaren berritze obrak egitea eta elektrika arauen arabera ezartzea
- **AURREIKUSI DITU** operazio horretarako beharrezkoak diren kredituak
- **GALDEGIN DU** BLED-TISE dirulaguntza 2023 urterako obra horiek egiteko.
- **ONARTU DU** eranskinetako finantzamendu plana

GASTUAK	ZENBATEKOA (BEZa gabe)	IRABAZIAK	ZENBATEKOA
Obrak	72 556.10 €	BLED-TISE	29 022.44 €
Ordainsariak	/	Autofinantzamendua	43 533.66 €
OROTARA BEZa gabe	72 556.10 €		72 556.10 €

Kargutan diren kideen kopurua: 15

2023ko URTARRILAREN 20ko bilduma

Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

5. 2023-05 DELIBEROA – GAIA: UREPELEKO HERRIKO ETXEAK BAIGORRIKO IBARREKO SINDIKATU BATZORDEARI ANGLÉSAINEN ETXE BEHEREA KITORIK UZTEA ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Lehenago igorri agiria ordezten du, bozkaren emaitzan makur material bat gertatu baitzen: Ez da “Bozkatu dutenen kopurua: 15” baina “Bozkatu dutenen kopurua: 11”.

Jaun auzapezak irakurtu du Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen 2022ko azaroaren 25eko deliberoa, hala nola UREPELEKO herriak Sindikatu Batzordeari kitorik uzten dakola UREPELEKO lehengo Anglesainea hotel-jatetxeko etxe beheera, kadastran C saila 614 (1. zatia) eta C saila, 615 (1. zatia).

Sindikatu Batzordea engaiatu da egoitza horretan antolaketa obrak egitera bulegoa han kokatzeko.

Jaun auzapezak oroitarazi du Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordeko 8 herriek behar dutela egoitzaren eskualdatzea onartu.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

- ✓ **ONARTU DU** UREPELEKO Herriko Etxeak Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordeari kitorik utz diezaion UREPELEKO lehengo Anglesainea hotel-jatetxeko etxe beheera, kadastran C saila 614 (1. zatia) eta C saila, 615 (1. zatia), bere egoitza administrazioa han finka dezan.
- ✓ **OROITARAZI DU** egoitzaren eskuratzeko notario-gastuak eta obrak Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen gain izanen direla, geometra-adituaren gastuak eta notario agiriaren bidez egoitza jabekidetasunean ezartzea, haatik, UREPELEKO Herriko Etxearen gain izanen dira.
- ✓ **MANDATUA EMAN DAKO** Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordeko lehendakariari 2022ko azaroaren 25ean hartu deliberoari dagozkion dokumentuak izenpetzeko, eta bereziki jatorrizko saltze agiria. »

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 11
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): / 4

6. 2023-06 DELIBEROA - KANPALEKUKO BARNE ARAUDIAREN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak jakinarazi dako Kontseiluari nahitaezkoa dela kanpalekurako barne araudi baten apailatzea eta harlekuan afixatzea (2014ko otsailaren 17ko erabakia).

Jaun auzapezak irakurtu du kanpalekurako apailatu barne araudi proiektua. Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- ✓ **ONTZAT EMAN DU** kanpalekuko barne araudia

2023ko URTARRILAREN 20ko bilduma

✓ **ZEHAZTU DU** kanpalekuko harlekuan afixatu behar dela

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

1. AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA: HUTSA

2. GAI OROTARIK

Herri barnearen antolatzeko ikerketa aitzin-operazionala

Paleografia ikastaldi proposamena

Bilkuran hartutako deliberoak 1etik 6ra zenbakiak dira.

Hor ziren kideen zerrenda: ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Betti jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, DEGUIRAUD Hélène anderea, CURUTCHARRY Antton jauna eta OLÇOMENDY Betti jauna,

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u>
--------------------------------	---